

## “Eguraldi dependentzia daukagu”

Onintze Salazar | Bilbotar bat Espejon

Eguraldia gizakiaren esku balego, zenbatgarren mundu gerran egongo ginateke?

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Alex Larretxi

**“... potrotaraino nago eguraldiaz hitz egiten dutenekin”, kantatzen du Garik.**

Futbol partida bati begira jarri eta futbolaz denek dakitela ematen du. Eguraldiarekin berdin. Gauza bat da eguraldiari buruz hitz egitea, eta beste bat guk baino gehiago dakitela pentsatzea.

**Barkatu, zuk atmosferako fisika ikasi zenuen...**

Eguraldi iragarpena emateko komunikatzailerik ona izatea da lehen baldintza, baina transmititu nahi duzuna goitik behera menperatzea ezinbestekoa da. Horri esker dakigu zenbateko ziurtasunez ari garen, erratzeko zenbateko tartea dugun...

**Et, et, et... Zuek ez zarete erratzen, eguraldia erratzen da!**

Meteorologia ez da zientzia zehatza baina ezin zara beti “ematen du”, “litekeena da”, esanez ibili!

**Tenporek bai jakin! Horiek busti egiten dira!**

Sinetsi dezakezu jainkoan, horoskopon, edo tenporetan, baina zer hartuko duzu oinarritzat, zientzia ala sineskeria? Euskal Herrian dena sartzen da meteorologiaren zakuan, baina ez, bi gauza oso ezberdin dira.

**Ez esan gure aitona-amonek ez dakitenik eguraldiaz...**

Ilargi beteko gauak hotzagoak direla esan izan da beti. Ilargiak eta hotzak ez dute zerikusirik. Zerua garbi dagoelako ikusten

da ilargia, eta zerua garbi dagoenez egiten du hotz handiagoa.

**Gure aitona ari garela... Euria iragartzean “eguraldi txarra” esaten duzunero sutan jartzen da.**

Aisialdiari begirako iragarpena egiten dugu, eta aisialdirako ateri egotea nahi izaten dugunez... Onartzen dut ez dela beti egokia.

**Aisialdirako iragarpenak?!**

Lehen mendira joan nahi bazenuen goizean jaikita egiten zenuen plana. Orain bezperatik planifikatzen duzu dena. Eguraldi dependentzia daukagu.

**Bai, bai, beti alerta egoeran...**

Ez dakit zergatik baina eguraldia notizia da. Komunikabideek ez dute ezer behar albistea puzteko eta gu ere zurrumbiloz harrapatzen gaituzte. Hori bai, alerta egoera gehiegi dekretatuz gero fidagarritasuna galduko genuke.

**Aurtengo negua bai ez dela fidatzekoa izan.**

Tarteka, halakoak tokatzen dira. 2005ean ere elur asko bota zuen baina nor akordatzten da? Jendeak memoria gutxi duenez, dena da historikoa, dena inoizko gogorrena, hotzena, elurtsuena...

**Ziur klima aldaketaren errua izan dela...**

Ez dauka zerikusirik, baina klima aldaketarekin dena justifikatzeko joera dagoenez... Jakingo bazenu zenbatek hitz egiten duten horri buruz aurre egiteko ezer egin barik... ■